

**Bere kargua utziko duen korporazioaren azken bileraren akta.**

**2015-06-09**

---

**Alkatea**

Ur Alguero Chivite jn.

**Zinegotziak**

Jokin Barandarain Telletxea  
Iker Barandarain Caballero  
Asun Arratibel Onsalo  
Txomin Zubillaga Uranga

**Ezin etorria adierazi dute**

Mikel Baraibar Garmendia  
Uxue Goikoetxea Saizar

**Idazkaria**

Ione Miren Lazkoz Maiza and.

Aresoko herrian, bi mila eta hamabosteko ekainaren 9(e)an, 09:30ak direnean, eta Ur Alguero Chivite alkate jn./and. buru dela, albo batera aipatu diren zinegotzi jn-/andreak batzartu dira Udaletxeko udalbatza-aretoan Toki Erakundearen Antolaketaren, funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 36.1 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, soilik egindako azken bilkurako akta onartzeko ondorioetarako.

Bilera aldez aurretik deia arauk agintzen duten behar besteko aurrerapenarekin eginda burutu da; horretarako, deialdiaren eta eguneko aztergaien ale bat paratu da Udaletxe honetako ediktu-taulan.

Bilerari hasiera emanda, eta udalburuak publiko eginda, eguneko aztergaietan jaso den gai bakarra eman da ezagutzera, eta honako erabakia hartu da:

## **AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

Udalburuak deialdiarekin batera banatu den aurreko Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, udalburuak bilkura amaitutzat jo du goian aipatutako eguneko 10:05 direnean. Idazkaria naizen honek aktaren egiaztapena egiten dut.

ONIRITZIA  
ALKATEA